

— 90 EKO PYRENAICA SARIKETAK —

«Euskal Herriko Mendiak» gaiari buruzko sariketaren bigarren saria, euskaraz.



Trakets zaldia une lasai batetan. Atzean, ni «kontrolatzen».

Kaixo, ONDDI naiz

ANDONI ARABAOLAZA

Jaun agurgarria:

Duela bizpahirur hilabete, zuk gidatzen duzun «Pyrenaica» aldizkarian irakurri dudan «Euskal Herriko Mendiak» titulupean konbokatutako sariketa dela eta, mendi bat izan arren, neure burua aurkeztea erabaki dut.

Berez, urnietarra naizela diote, eta Adarra mendiarekin batera, Bost hiritako mendimultzoaren IM-ko mendiguruaren parte naiz. Nire 543 m kaxkarrak badira ere aldapa haundiko mendi hegala erliebeak eta lodiera gutxiko lurzoru-erakuntzak osatzen dut; hareharri triasikoak gandor eta aldapak ditudan erliebe estrukturala eratuz.

DAGOENEKOZ, bost urte igaro dira Diputazioak 300 hektareak «bir-latu» egin ninduela, beste 96 hektareak Urnietako udalerraren poltsikoan geratu zirelarik. Egun, Diputazioa, bere modura eta ze modura gainera, egundoko «bir-landaketak» eta dagozkion Frankestein kaxako esperimentoetan murgiltzen da. Klase guztietako zuhaitzak (eta pinua ez dezagun ahaztu) landatzen ari dira... gehi partikularren materialismoaren bidez landatutako pinua... (behinik behin, paperfabrikak eragindako txapuzak idanik ez dituzt ezagutzen;

1978 geroztik pinuen mozketak amaitu bait ziren) ondorio nazkagarriak ekarri dizkidate. Adibidez, ipar aurpegia «top less»ean aurkitzen da eta atzekoa biluz-biluzik, beno, pista, karretera edo autopista «milaka» zainak irudi txiroan bihurtu dira. A ze komerial!

Egia esan, zorua basogintzarako aproposa da. Pinua jaun eta jabe izan arren, hostozabalak zuhaitzi atlantiarrak, iralekuak eta otalurrak errelikiak bezala ditut.

Lurra hareatsua eta sustraiez zeharkatuta dago, eta denbora joanahala, harriak piskanaka-piskanaka muturrak azalduz «panora-



Diputazioa, eskopeteroen zaborra eta pinuak, a ze hiru!

ma» beldurgarria sortarazten ari dira. Lehor naiz!

Harbela eta koartzita han-hemenka aurkitzen dira, lutitaz zementaturiko harkosko kuartzitikoei ere paso utziz. Materiale triasikoak detritikoak dira, hareharri gorri ardo koloreko tonu bioletaz eratuak; gainera, mi-kan oso aberatsak diren limo gorriak sabai mailetan agertzen dira.



Mulisko Gaina: atzo, gaur eta bihar.

Iberduerokoek (noski) muturra ere, hanka hobe esan da, sartu dute; eta nire ipar aurpegian eransgailu bat... toma ya... ipini didate. Neurri haundiko xafla zuri bat uhinak hartzeko eta bertatik Ziguñako subestazioa bidaltzeko. A bai, Zikuñaga, enpresa «modelikoa»: betidanik, lurak lapurtzen (niri ere), pinuak landatzeko, mozteko... eta, plaf, paperean bihurtzeko. Eta noski, SO₂, CO₂... eta horrelakoak botatzen... kutsadura zakar eta kondentatzaile baten irudia hartzen duelarik.

Hau da, orainarte esandakoaren arabera, argi eta garbi dago, nire buruaren aurkezpenaren deskripzioak gizakiokin lotura apurtu ezina duela. Zuek inposatutako jabetasuna, erabilpena, mugatasun geografikoak etab nik mutu-muturik jasan behar izan dut. Ez da? Hausnarketaren bideak zabalik daude... arazoen (pinuak, zaborrak, pistak...) konponketak zuen eskuetan dago...

Horregatik, Mulisko Gainara eramango zaituztet, hausnarketak gure arbasoekin tratatzeko. Leku aproposa mezuak, ideiak, burutazioak... argitzeko edo/eta konpontzeko, azken finean hitzegiteari bidea emanez.

Mulisko Gaina, kanpusantu zaharra

Mulisko Gaina, horrela botata, gure arbasoen kanpusantu bezala kontsideratua izan da; hitz teknikotan kromlecha (hitz bretoia) dugu. Multzo megalitiko hau nire H.E.-ko hegaleko zapalda batean kokatzen da, itsas-mailatik 415 m-tara. Bertara hurbiltzeko modu erosoena Besabi baserritik abiatu, Pozontarri lepoa zeharkatu, eta HE-ko isuri aldea inguratuz doan pista baten ondoan, bertan-bertantxe.

Ni eta Mandoegi artean dagoen mendikatean aurkitzen da. Jarrai dezagun mendikatea: H-rantz, Aballarri eta Adarra zeharkatuz Eteneta leporaino iristen gara. Toki honetan mendilerroa H-HE-ra okertzen da, Argarate, Azketa, Leuneta, Abadekurutz, Mandoegi eta Urepel zeharkatuz Leizalarren amaitzeko, Atzaditik igaro ondoren. Nire M-rantz Usobelartza eta Aizkorrikotik doa. Altuerak, nire 543 metroak eta Adarran 807 m-tara iristen delarik; Mandoegi eta Urepelen 1.000 m gaindituz. Mendikate hau Urumea (zain de-

zagun) eta Leizaran (ez dira pasako) ibarretako uren lerro nabatzailea da.

1956 urtean J.M. Hernandezek ehorzketa multzo hau aurkitu zuen, L. Millanek 1976an 1 eta 2 harrespilekin eman zuen; bi urte geroago berak eta L. del Barriorekin batera 3 harrespila. Hemendik aurrera, eta batez ere 1983, 84 eta 85ean, Aranzadi Zientzi Elkarteak indusketa arkeologikoari gogor ekin zion. Beti ere, arazoak (edo txapuzak) bertan «jan» beharrean aurkitu dira; hala nola, 1983an, eta berriz ere paperfabrikak hanka sartuz, pinu mozketa baten ondoren, eta egurra ateratzeko asmoz, pista bat luzatu nahi zuten aztarnategiaren erditik, baina, azkenean, metro batzuek urrutitzea lortu zen. Lan hauetan ari ziren kamioietako batek manio-brera alu baten ondorioz zutarrria eta harrespilen ortostato ugari hautsi zituen. Alajain!

Mulisko Gaineko multzo megalitikoak 4 harrespilek, ganbara bikoitzeko zistak eta bera inguratzen duen tumuluak, zutarrri bategen eta ezaugarri zehazgaitzak dituzten egiturek osatzen dute.

Bertan agertzen diren materialak industri harrizkoak dira: printzak, ijelkiak, marruskak, zulagailuak, zulakaitzak, puntak eta beste batzuk materiale azpimarragarrienak dira.

Ondoren, eta nahikoa ez bada edo zirrara haundia sentitu baduzu, Mulisko Gainatik ikus edo bereiz daiteken monumentu megalitikoetatik bueltatxo bat eman dezagun.

Has gaitezen Onddiko zistarekin eta Pozontarriko trikuharriarekin oso hurbil bait daude. Adibidez, azken hauek 500 eta 1.000 m-tara daude. Segi eta oso erraz ikus daitezken (1.600 m-tara) Arleorko Zabaleko harrespilak eta Aballarriko trikuharriak daude. Piskat hurrunago, 2.000 m-tara hain zuzen, Elurzulo Harrespil tumularra gozatzeko duzu. Tximista Egiko lepoan aurkitzen diren harrespil-multzoa 2.700 m-tara. Eta azkenik, nahiz eta urrutiago egon, Eteneta I eta II multzoak eta beste monumentu sail bat ikusteko duzu: 44 harrepil, 5 trikuharri, 3 zista, 2 tumulu eta 2 monolito. Hau bai dela ikuskizuna, ez da?

Protohistoriari dagokion K. a I. milaurtearen multzo megalitiko honen informazioa, ezagupena... jaso eta zabaldu nahi badu zu edozein unean gera gaitzke, beti hemen aurkituko bait nauzu. Baina, halere, alper xamarra bazara jo zazu Aranzadi Zientzi Elkarte-ara eta modu bikain batez tratatuko zaituzte.

Besterik gabe, zuen hausnarketa gunea atsegina izan dezala esperoan, mila eskerraz zuen harreragatik. Betirarte. ■

Onddi Mendia

RESUMEN

¡Hola! soy el ONDDI

ESTA vez se nos presenta en euskera un concursante original: dice llamarse Onddi, de 543 metros, urnietarra y pariente del conocido Adarra (en el catálogo se le conoce como Oindi, de 545, entre Andoain, Hernani, Urnieta y Xoxoka).

Empieza explicándonos cómo es, contándonos su estafalaria pinta como consecuencia de una historia que termina con una repoblación forestal experimental. El resultado es la cara N. en plan topless, cables y postes de electricidad sobre sus huesos de pizarra y cuarcita y naturalmente, el pino, como señor y dueño del paisaje.

Pero, sobrepasando esta deprimente impresión, nos invita a buscar los restos de nuestros antepasados en Mulisko Gaina; es un cromlech, en definitiva un cementerio prehistórico, que nos da paso a una abundante colección de monumentos megalíticos hasta las alturas del Mandoegi, por la cadena que sigue el Urumea (salvémoslo) y el Leizaran (no pasarán).

Para más información consultar al Grupo de Ciencias Aranzadi.

Zergatik ez duzue landaketa serio bat egiten?

